# EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREKIKO KONPROMISOA

INGARTEKeko zuzendaritzak konpromisoa adierazten du emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreal eta eraginkorra integratuko duten estrategiak ezartzeko eta garatzeko, inolako diskriminaziorik gabe, bai eta gure enpresan benetako berdintasuna lortzeko neurriak bultzatzeko eta sustatzeko ere.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioa oinarri estrategikotzat hartzen dugu, eta konpromiso hauek hartzen ditugu:

- Tratu- eta aukera-berdintasuna bermatzea enpresan lan egiten duten emakumeei eta gizonei, enplegua lortzeari, prestakuntzari, lanbide-sustapenari eta -garapenari, ordainsariei, parte-hartzeari eta lan-baldintzei dagokienez.
- Plantilla osatzen duten pertsonen lana, bizitza pertsonala eta familia-bizitza uztartzea erraztea, erantzunkidetasuna sustatuz.
- Errespetuzko lan-ingurune eraginkorra eta segurua lortzea, prebentzio-neurriak ezarriz eta sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena eragiten duen edozein jokabideren aurrean eraginkortasunez jardunez. Jokabide horiek ez dira gure erakundean onartuko.
- Langileak sentsibilizatzea eta prestatzea emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, eta berdintasun-printzipioa txertatzea prestakuntza-jardueretan.
- Gure barneko zein kanpoko komunikazioetan hizkuntza eta irudi ez-sexistak erabiltzea.
- Genero-ikuspegia zeharka txertatzea proiektu eta zerbitzuetan eta enpresaren kudeaketa-arlo guztietan.
- Gure gizarte-ingurunean berdintasuna bultzatzen duen erakundea izatea, eta ildo horretan gizarte-aldaketak sortzen lagunduko duten jarduerak sustatzea.
- Berdintasun Planeko ekintzak eraginkortasunez ezartzeko behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak esleitzea.

Enpresak legezko betebeharrik ez duen arren, aipatutako printzipioak praktikan jarriko dira berdintasun planak ezarriz, eta dagozkion jarraipen- eta ebaluazio-sistemak ezarriko dira.

Berdintasun Plana kudeatzeko, Berdintasun Batzordea sortu da, lanpostu funtzional desberdinetako pertsonek osatua. Era berean, plantilla osatzen duten pertsona guztien parte-hartzea bultzatuko da.

Zuzendaritzak berak bere gain hartzen du Berdintasun Plana garatzeko eta emaitzak jakinarazteko lidergoa.

Bilbon, 2022ko apirilaren 5ean

(Zuzendaritza Batzordea)

# COMPROMISO CON LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES

INGARTEK
Inteligencia en movimiento

La dirección de INGARTEK declara su compromiso en el establecimiento y desarrollo de estrategias que integren la igualdad real y efectiva entre mujeres y hombres, sin ningún tipo de discriminación, así como en el impulso y fomento de medidas para conseguir la igualdad real en el seno de nuestra empresa.

Asumimos el principio de igualdad entre mujeres y hombres como un principio estratégico y nos comprometemos a:

- ➔ Garantizar la igualdad de trato y oportunidades a las mujeres y los hombres que trabajan en la empresa, en lo referente al acceso al empleo, la formación, la promoción y el desarrollo profesional, la retribución, la participación y las condiciones de trabajo.
- ➔ Facilitar la conciliación de la vida laboral, personal y familiar de las personas que constituyen la plantilla, promoviendo la corresponsabilidad.
- ➔ Conseguir un entorno de trabajo eficaz, seguro y respetuoso, estableciendo medidas para la prevención y actuando eficientemente frente a cualquier conducta constitutiva de acoso sexual o acoso por razón de sexo, que no serán permitidas ni toleradas en nuestra organización.
- ➔ Sensibilizar y formar al personal en materia de igualdad de mujeres y hombres e integrar el principio de igualdad en las actividades formativas.
- ➔ Hacer un uso no sexista del lenguaje e imágenes tanto en nuestras comunicaciones internas como externas.
- ➔ Integrar la perspectiva de género de manera transversal en los proyectos y servicios y en todas las áreas de gestión de la empresa.
- ➔ Ejercer de organización tractora de la igualdad en nuestro entorno social, promoviendo actuaciones que contribuyan a generar cambios sociales en este sentido.
- ➔ Asignar los recursos humanos y materiales necesarios para la implantación efectiva de las acciones del Plan de Igualdad.

Aunque la empresa no tiene obligación legal, los principios enunciados se llevarán a la práctica a través de la implantación de planes de igualdad, arbitrándose los correspondientes sistemas de seguimiento y evaluación.

Para la gestión del Plan de Igualdad se ha creado la Comisión de Igualdad, integrada por personas de diferentes puestos funcionales. Asimismo, se potenciará la participación de todas las personas que conforman la plantilla.

La dirección asume personalmente el liderazgo para el desarrollo del Plan de Igualdad y la comunicación de los resultados.

Bilbao a 05/04/2022

(Fdo.: Comité de dirección)